

SEGURTASUNA

TRATAMENDU JARDUEREN ERREGISTROA

Dokumentuaren sailkapena: Publikoa



2026ko otsaila



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Dokumentu hau indarrean egongo da harik eta formalki berrikusi edo eguneratu arte. Arauetan, teknologian eta antolamenduan gertatzen diren aldaketetara egokitzeko berrikusiko da. Gainera, berehala berrikusiko da testuinguruan, legerian edo barruko prozesuetan aldaketa garrantzitsuren bat gertatuz gero.

Aurkibidea

Datuen tratamenduaren arduraduna	4
Interesdunen eskubideak	4
Nola erabili eskubideak	5
Tratamendu Jardueren Erregistroa	5
Datuen kategoria	8

Datuen tratamenduaren arduraduna

Arduraduna: Arabako Kalkulu Gunea AB IFZ: A-01052539 (hemendik aurrera, AKGAB)
Posta helbidea: Probintzia plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz
Telefona: 945 181818
Posta elektronikoa: dbo-dpd_ccasa@araba.eus

Interesdunen eskubideak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duenak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra”) xedatzen duenaren arabera, datu pertsonalen titularrek eskubide hauek dauzkate:

- Eskuratzeko eskubidea; horren bidez interesdunak tratamenduaren arduradunarekin hitz egin dezake jakiteko bere datu pertsonalak tratatzen ari diren, bai eta tratamenduaren inguruko informazioa eskuratzeko ere (helburua, noiz arte gordeko diren datuak, etab.).
- Zuzentzeko eskubidea; horren bidez interesdunak tratamenduaren arduradunari eskatu diezaioke oker dauden datu pertsonalak zuzentzeko. Eskubide hori erabiltzeko, interesdunak eskaeran zehaztu behar du bere ustez zer datu dagoen oker eta zer aldatu behar duen AKGABk; gainera, nahitaezkoa denean, datuak oker daudela edo datuak falta direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar ditu.
- Ezabatzeko eskubidea (ahazteko eskubidea); horren bidez interesdunak tratamenduaren arduradunari eskatu diezaioke ezabatzeko bere datu pertsonalak. Eskubide hori ezin da erabili datuen tratamendua beharrezkoa denean Europar Batasunaren zuzenbidean edo Batasuneko estatuetako baten zuzenbidean ezarritako legezko betebeharrak betetzeko.
- Aurka egiteko eskubidea; honen bidez interesdunak eragotzi egin dezake bere datu pertsonalak helburu jakin batzuetarako erabiltzea.
- Mugatzeko eskubidea; honetaz baliatuz interesdunak eskatu dezake aldi batez murrizteko bere datu pertsonalen erabilera, inguruabar jakin batzuetan.
- Datuen eramangarritasunerako eskubidea; honi esker interesdunak arduradunari emandako datu pertsonalak jaso ditzake eta beste arduradun bati eman diezazkioke.
- Banakako erabaki automatizatuak ez aplikatzeko eskubidea.

Nola erabili eskubideak

1. Eskaera aurkeztu: Eskubide horiek erabili nahi dituenak eskaera bidali behar du postaz edo modu elektronikoan:
 - o Postaz: Arabako Kalkulu Gunea AB
Probintzia plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz
 - o Helbide elektronikoa: dbo-dpd_ccasa@araba.eus
2. Izapidetzea eta ebazpena: AKGABk hilabeteko epealdia edukiko du eskaerari erantzuteko. Eskaera konplexua bada edo eskaera asko pilatzen badira, epealdia bi hilabete gehiago luzatu ahal izango da. Hala gertatzen denean, epealdia luzatzeko arrazoia azaldu beharko zaio eskatzaileari.
3. Aurkaratu edo ebazpena epez kanpo: Tratamenduaren arduradunak ez badu erantzuten hilabetean edo eskatutakoa ukatzen badu, interesdunak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari.

Tratamendu Jardueren Erregistroa

1. AKGAB-REN INSTALAZIOETAN SARTZEN DIRENAK KONTROLATZEA

Tratamenduaren izena

AKGABren instalazioetan sartzen direnak kontrolatzea.

Tratamenduaren arduraduna

Arabako Kalkulu Gunea AB

Tratamenduaren helburua

AKGABren instalazioetan sartzeko baimenak kudeatzea eta sartzen direnak kontrolatzea.

Interesa duten pertsonen kategoria

- AKGABko langileak.
- Hornitzaileak.
- Bisitariak.

Datuen kategoria

Identifikazio eta harremanetarako datuak.

Hartzaileen kategoria

Miñoiak eta Estatuko beste segurtasun indar eta kidego batzuk.

Tratamenduaren legitimazioa

- Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da arduradunaren interes legitimoak asetzeko.

Segurtasun neurriak

311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunerako Nazio Eskema arautzen duena (II. eranskina).

Datuak gorde beharreko aldia

Datuak hilabete gordeko dira gehienez, biltzen direnetik zenbatuta, kasu honetan izan ezik: pertsonen, ondasunen edo instalazioen osotasuna urratzen duen egintzaren bat gertatu dela frogatzeko gorde behar direnean, DPBEBLOk 22. artikuluan ezartzen duen bezala.

Datuen nazioarteko transferentziak

Ez da egingo nazioarteko datu transferentziarik.

2. AKGAB-REN FINANTZAK ETA KONTRATAZIO PUBLIKOA KUDEATZEA

Tratamenduaren izena

AKGABren finantzak eta kontratazio publikoa kudeatzea.

Tratamenduaren arduraduna

Arabako Kalkulu Gunea AB

Tratamenduaren helburua

AKGABren finantzak eta kontratu publikoak kudeatzea.

Interesa duten pertsonen kategoria

- AKGABko langileak.
- Hornitzaileak.
- Erakunde kontratatzaileen legezko ordezkariak.
- Lizitatzailak.

Datuen kategoria

- Identifikazio eta harremanetarako datuak.
- Banku datuak eta ekonomia eta ondarearekin lotutakoak.
- Datu akademikoak eta profesionalak.
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Hartzaileen kategoria

Banku erakundeak.

Tratamenduaren legitimazioa

- Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu dakiokeen legezko betebeharrak betetzeko.
 - o 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena.

Segurtasun neurriak

311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunerako Nazio Eskema arautzen duena (II. eranskina).

Datuak gorde beharreko aldia

Datuak betiko gordeko dira.

Datuen nazioarteko transferentziak

Ez da egingo nazioarteko datu transferentziarik.

3. LAN POLTSAK HAUTATZEKO ETA SORTZEKO PROZESUAK KUDEATZEA

Tratamenduaren izena

Lan poltsak hautatzeko eta sortzeko prozesuak kudeatzea.

Tratamenduaren arduraduna

Arabako Kalkulu Gunea AB

Tratamenduaren helburua

AKGABren lan poltsetan inskribatutako pertsonen eta hautaketa prozeduretan ari direnen datuak kudeatzea.

Interesa duten pertsonen kategoria

- Herritar eskatzaileak.
- AKGABko langileak.

Datuen kategoria

- Identifikazio eta harremanetarako datuak.
- Datu akademikoak eta profesionalak.
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Hartzaileen kategoria

Ez da egingo datu lagapenik.

Tratamenduaren legitimazioa

- Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu dakiokeen legezko betebeharrak betetzeko.
- Interesdunak baimena eman du bere datu pertsonalak tratatzeko.

Segurtasun neurriak

311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunerako Nazio Eskema arautzen duena (II. eranskina).

Datuak gorde beharreko aldia

Datuak hautaketa prozesuak irauten duen artean gordeko dira. Lan poltsetan dauden interesdunen datuak poltsa berria egin arte gordeko dira.

Datuen nazioarteko transferentziak

Ez da egingo nazioarteko datu transferentziarik.

4. DATUEN BABESAREN INGURUKO ESKAEREN ARRETA

Tratamenduaren izena

Datuen babesaren inguruko eskaeren arreta.

Tratamenduaren arduraduna

Arabako Kalkulu Gunea AB

Tratamenduaren helburua

Herritarrek beren datuak babesteko eskubideak erabiltzeko aurkezten dituzten eskaerak kudeatzea.

Interesa duten pertsonen kategoria

- Herritar eskatzaileak.

Datuen kategoria

- Identifikazio eta harremanetarako datuak.
- Emandako beste datu pertsonal batzuk.

Hartzaileen kategoria

Ez da egingo datu lagapenik.

Tratamenduaren legitimazioa

- Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu dakiokeen legezko betebeharrak betetzeko.
 - o (EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).
 - o 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.

Segurtasun neurriak

311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunerako Nazio Eskema arautzen duena (II. eranskina).

Datuak gorde beharreko aldia

Datuak gordeta edukiko dira interesdunen eskubideak erabiltzeko prozedurak irauten duen artean eta erantzukizunik dagoen zehazteko behar den aldian.

Datuen nazioarteko transferentziak

Ez da egingo nazioarteko datu transferentziarik.

Datuen kategoria

Identifikatzeko eta harremanetarako datuak

NAN, Gizarte Segurantzako/Mutualitateko zenbakia, izen-abizenak, helbidea (postala, elektronikoa), telefonoa, sinadura, irudia/ahotsa.

Inguruabar sozial eta pertsonalari buruzko datuak

Egoera zibila, familiari buruzko datuak, jaioteguna, jaioterria, adina, sexua, nazionalitatea, ama hizkuntza, lan egoera, elkarteren bateko kide izatea.

Banku datuak eta ekonomia eta ondarearekin lotutakoak

Diru sarrerak, errentak, inbertsioak, ondare ondasunak, kredituak, maileguak, abalak, banku datuak, pentsio planak, erretiroa, nominako datu ekonomikoak, zerga kenkariak datuak/zergak, aseguruak, hipotekak, subsidioak, mozkinak, kredituen historia, kreditu txartelak

Datu akademikoak eta profesionalak

Prestakuntza, titulazioak, lanbide esperientzia, elkargo edo elkarte profesional bateko kide izatea, ahalordetzeak.

Enpleguaren xehetasunak

Kidegoa/eskala, kategoria/taldea, lanpostua, nominako datu ez-ekonomikoak, langilearen historia, ahalordetzeak.

Harreman instituzionalak

Harreman instituzionalak.

Merkataritza datuak

Jarduerak eta negozioak; merkataritza lizentziak; argitalpen/komunikabide harpidetzak; arte, literatura, zientzia edo teknika sorkuntzak.

Datu kategoria bereziak

Jatorri etnikoa edo arraza, osasuna, sexu bizi, ideologia, afiliazio sindikala, sinesmen erlijioso edo filosofikoak, iritzi politikoak, datu genetikoak, datu biometrikoak adiera bakarrean pertsona fisiko bat identifikatzeko.

Genero indarkeriari buruzko datuak

Genero indarkeriari buruzko datuak.

Zigor eta arau hauste penalei buruzko datuak

Zigorak eta arau hauste penalak.

Administrazioko arau hausteei buruzko datuak

Administrazio arau hausteak.

Gailuaren identifikazioa eta geolokalizazioa

Gailuaren identifikazioa eta geolokalizazioa.